

Balio Proposamena

Noizbait gertatu al zaizue denborarik gabe zabiltzala eta erosketak egin behar dituzula? Horrelako egoera baten aurrean gure aplikazioa instalatzearekin soilik ez zenuke kezkatu beharko denborarengatik. Horrelako egoeretan jendeak erosketak azkar eta gaizki egin ohi ditu, eta ondorioz, berriro ere itzuli behar dute erosketak egitera. Beraz, erosketak bi aldiz egin behar dituzte lehenengoa modu efizientean ez egiteagatik. Horren aurrean ez dago Find Market app-a instalatu eta erabiltzea baino irtenbide hoberik, izan ere, erosi nahi dituzun produktuen arabera ibilbide azkarrena egiteaz gain, nahi duzun prezio eta kalitatearen arabera aukeratzeko dizkizu ere. Ondorioz, gure bezeroei konpontzen diegun arazoa denbora aurrezteko eta erosketak modu efizientean egitea da.

Jendea supermerkatuara erosketak egitera joatean, askotan ez daki non dagoen nahi duten produktua. Beraz, supermerkatuekin kolaboratuz, gure app-ean supermerkatuako mapa agertzen da. Gainera, nahi dituzun produktuen arabera mapa horretan ibilbide bat planteatzen dizu. Ibilbide hau hainbat algoritmorekin kalkulatu da eta beti izango da azkarrena eta efizienteena.

- Gure app-ak berritasuna eskaintzen die bezero guztiei, supermerkatuan gauzak aurkitzeaz gain, denbora aurrezten laguntzen dizu.
- Supermerkatuek jendea erakartzeko estrategia berria litzateke. Jendeak ikusten duenean supermerkatuara joan eta buruhausterik gabe erosketak azkar eta efiziente bat egitea posible dela app-a deskargatuko du.
- Supermerkatuak prest egongo da gure app-a erosteko beraien bezeroak prest egongo direlako supermerkatu berriztatzaile horretara joatea erostera.
- App-a oso erabilerraza da, izan ere, nahi dituzun produktuak aukeratu behar dituzu soilik eta automatikoki ibilbidea egiten dizu. Era berean, produktuaren balorazioak ikus ditzakezu, nahi duzun kalitate eta prezioaren arabera produktuak aukeratzeko dizu.

Horregatik, Find Market deskargatzen duen pertsona orok jasoko dituzten onurak honako hauek dira: denbora aurrezten eta erosketak efizienteago egiten laguntzen diegu, gainera, gure produktua bakarra eta berriztatzailea izateaz gain, oso intuitibo eta erabilerraza da.

EAZA IDEIA

Por Eaza



Eaza, todo el contenido se desbloqueará durante 5 días más.

MEJORAR